



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ESP.KODEA COD.EXP.	2022HPEA0001
ESPEDIENTEA EXPEDIENTE	PLANES DE ORDENACION ESTRUCTURAL
TITULARRA TITULAR	AZKOITIKO UDALA
TOKIA LUGAR	AZKOITIA SN, (UDALERRI OSOA)

UNAI URKIJO RODRIGUEZ, AZKOITIKO UDALEKO IDAZKARIA,

NEUK ZIURTATUA

Nire ardurapeko Idazkaritzan dagoen dokumentazioa aztertu ondoren, eta Toki-Entitateen Antolakuntza, Funtzionamendua eta Jardunbidea arautzen dituen azaroaren 28ko 2568/86 Errege-Dekretuko 206. artikulua xedaturiko ohartarazpena eginez, bilkurako Akta ez baitago onarturik, Azkoitiko Udalbatza Plenoak 2022ko irailaren 28an egindako bilkuran, beste batzuen artean, honako akordio hau hartu zuen gehiengoz:

“HIRIGINTZA, OBRAK ETA ZERBITZUETAKO BATZORDE INFORMATIBOAK AURKEZTEN DUENIRIZPENA, AZKOITIKO HIRI ANTOLAKETAKO ARAUDIETAKO 5. ALDAKETA ZEHATZA: 10. SEKTOREA “TXALON ERREKA EKIALDEA”, 13. AREA “INSAUSTI”, eta ARAUDI OROKORRA.

1. UDAL ARKITEKTOAREN TXOSTENA

Txosten hau idazten da, 2022ko irailaren 14an Xabier Berasategik, BEB Arkitektoak-en izenean, entregatu zuen Azkoitiko Plangintzaren Arau Subsidiarioen 5. Aldaketa Puntualen dokumentuaren gainean. Dokumentuak Azkoitiko bi eremuri egiten die erreferentzia (Txalon Erreka eta Insausti, Etxebizitza sailarekin adosturiko hitzarmena bete asmoz), eta txostena udalak eskatuta egiten da, dokumentuaren hasierako onespena egin dadin.

"Azkoitiko Plangintzaren Arau Subsidiarioen 5. Aldaketa Puntuala, "Txalon Erreka Ekialdea" 10. sektoreari, "Insausti" 13. Eremuari buruzkoa, zein Azkoitiko Araudie horren zenbait artikuluri buruzkoa", hasierako onespenerako dokumentua dena, euskarri digitalean entregatzen da (erregistro elektronikoa, 3903 sarrera zenbakiduna), Xabier Berasategik aurkeztu duela adierazten duen idazkiaren kopia batekin batera.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

2022ko ekainaren 3an bulego tekniko honek egin zuen txostenaren bidez, Ingurumen eta lurralde politika sailari galdetu zitzaion erreferentzia-dokumentuaren ingurumen-ebaluazio estrategikoa beharrezkoa ote zenaren inguruan.

Aipatu ingurumen txosten estrategikoa joan den 2022ko irailaren 5ean igorri zuen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak.

I. AURREKARIAK

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak, 2007ko ekainaren 19ko saioan behin betiko onartu zuen Azkoitiko Hiri Antolaketako Arauen Testu Bateratua (GAO 193. zk., 2007ko urriak 2).

Halaber, Azkoitiko Udalak, A-2 Ensantxea, A-3 San Martin, A-4 Floreaga, A-14.2 Ugarte Igara, A-19 Juin eta A-21 GSBAcero eremuetan eragina zuen Hiri Antolaketako Arauen 1. Aldaketa Puntuala behin betiko onartu zuen 2010eko ekainaren 22ko osoko bilkuran (GAO 146. zk., 2010eko abuztuaren 3koa).

Aurrerago, Azkoitiko Udalak Hiri Antolaketako Arauen Testu Bateratuaren 2. Aldaketa Puntuala egin zuen, eta alde batetik, lurzoru hiritarrezinari buruzko Araudi Orokorreko artikulua batzuk aldatu zituen, funtsean, Araudi hori Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan zehaztutako xedapenetara egokitzeko.

Horrez gain, udalerrian jarduera ekonomikoetarako erabiltzeko lurzoru hiritargarriaren sektore bateko zenbait alderdi ere aldatu ziren, eta beste bi sektore berri sortu ziren jarduera ekonomikoetarako. Lehenengoak lurzoru berria sailkatu zuen, udalerrikoa agortuta baitzegoen; eta bigarrenak, berriz, basogintzako enpresa baten (zerrategia) egoera erregularizatu nahi zuen. Azkenean, indarrean dagoen plangintzan dagoeneko sailkatutako sektore misto batean (etxebizitza erabilera eta jarduera ekonomikoetarako) doiketa bat egitea erabaki zen. Aldi berean, erabilera industrialerako eremutako bi lursailetan aldaketa txiki bat egin zen, bi zuzkidura jardueren bidez, ordura arteko eraikigarritasuna areagotzeko.

Presaz gero, bi aldaketa puntual besterik ez ziren garatu.

Testuinguru horretan, Azkoitiko Udalaren ustez, beharrezkoa iruditu zitzaion dokumentu berri hau idaztea, hirugarren aldaketa puntual gisa, era horretan, hiri antolaketako arauen aplikazioan sortutako arazo batzuk konpontzeko.

2015eko urriaren 28ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren bitartez, Azkoitiko Udalak Plangintzaren Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren 3. Aldaketa Puntuala onetsi



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

zuen; arau subsidiarioek Egurrola baserriaren inguruari, Zabale 16. Sektoreari, Oinartxo 26. Sektoreari eta Lurzoru Urbanizaezinaren zati bati eragiten zioten (234. GAO, 2015eko abenduaren 7koa).

Ondoren, Azkoitiko Udal honek, Hirigintza Plangintzaren Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren 4. Aldaketa Puntualaren prozedura abiarazi zuen. Dokumentu horrek hainbat azpiatal jasotzen bazituen ere, hiri lurzoruari dagokion zatia bakarrik onartu da behin betikoz gaur egun (2020ko uztailaren 20an, GAO 193, 2020ko urriaren 8koa), eta izapidetze zain dira lurzoru ez urbanizagarriaren inguruko determinazioak eta Izarre Jandalo eremuaren kalifikazioa.

Une honetan, Azkoitiko Udalak Plangintzaren Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren 5. Aldaketa Puntualaren prozedura hasteari ekiten dio.

Honela zehazten da indarrean dagoen plangintza orokorrean izango duen eragina:

El origen del presente Proyecto, por un lado, lo encontramos en el Convenio de colaboración suscrito en fecha 31 de Mayo de 2.021 entre el Ayuntamiento de Azkoitia, la Sociedad municipal Azkoitia Lantzen S.A. y la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco (Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes) para la promoción de vivienda de protección pública en el Sector 10 Txalon Erreka de Azkoitia (El citado Convenio se acompaña al presente Proyecto como Anexo).

En virtud del mismo, se acordó la compraventa de tres parcelas de titularidad de la Sociedad Municipal ubicadas en el citado ámbito urbanístico a la Administración General de la C.A.V., y que a continuación se identifican:

- 1.- Parcela Nº 1 o P-1 que se corresponde con la Parcela "A.10.1.A.a" del Plan Parcial modificado del Sector 10 Txalon Erreka.*
- 2.- Parcela Nº 2 o P-2 que se corresponde con la Parcela "A.10.1.A.b" del Plan Parcial modificado del Sector 10 Txalon Erreka.*
- 3.- Parcela Nº 3 o P-3 que se corresponde con la Parcela "A.10.1.A.c" del Plan Parcial modificado del Sector 10 Txalon Erreka.*

Según el Planeamiento urbanístico vigente, las dos últimas parcelas citadas tienen como destino la ejecución de viviendas de protección oficial de régimen general.

No así, la Parcela Nº 1 o P-1 (A.10.1.A.a), en la que actualmente se prevé la ejecución de un total de 16 viviendas de mercado libre.

Por dicho motivo, las partes firmantes del citado Convenio acordaron destinar la totalidad de dichas parcelas a la promoción de viviendas de protección pública, en el marco de la política de vivienda del Departamento de Planificación Territorial, vivienda y transportes del Gobierno Vasco, conforme a los criterios establecidos en la Ley 3/2.015, de 18 de Junio, de Vivienda, siendo



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

necesaria la modificación del planeamiento urbanístico en lo que se refiere a la Parcela P-1 antes citada, en la actualidad destinada a vivienda libre, tal y como se prevé en la Cláusula Cuarta del Convenio, mediante una transferencia de dicha edificabilidad por la de vivienda protegida sita en una de las parcelas del Area 13 Insausti, más concretamente en la Parcela B.4.1 del Plan Especial de Reforma Interior modificado del referido ámbito, función que corresponde al Ayuntamiento de Azkoitia a través del presente Proyecto.

En este punto, debe recordarse que según dispone el art. 53, 1, g) de la Ley 2/2.006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo, la ordenación estructural comprende, entre otras, las determinaciones siguientes con carácter general:

g) Las determinaciones precisas para garantizar el cumplimiento tanto de los estándares y cuantías mínimas de viviendas sometidas a algún régimen de protección pública como de las reservas para alojamientos dotacionales.

Conforme a ello, se estima que el presente instrumento es el adecuado para proceder a la transferencia de dicha edificabilidad entre ámbitos urbanísticos y parcelas diferentes del vigente planeamiento general del municipio.

Junto a ello, mediante el presente proyecto se procede a introducir una modificación en varios artículos de la Normativa General, conforme a lo establecido en el art. 103 de la Ley 2/2.006 y 33, 1 del Decreto 105/2.008, y con los límites y las condiciones fijadas en los arts. 105 y 35 de los Textos Legales que se acaban de citar, respectivamente.

En fecha 5 de Septiembre de 2.022, el Director de Calidad Ambiental y Economía Circular del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambientedita Resolución por la que se formula Informe Ambiental Estratégico, por el que se dispone que no se prevé que la presente modificación puntual vaya a producir efectos adversos significativos sobre el medio ambiente y, por tanto, no debe someterse a evaluación ambiental estratégica ordinaria.

II.- DOKUMENTAZIOA

2/2006 Legeak 62. artikuluan xedatutakoaren arabera, aurkeztutako dokumentuak, aldatuko diren alderdiei dagokienez, honako dokumentu hauek eduki beharko ditu:

a) Informazio eta zuritze memoria. Bertan, judizio elementu guztiak barne hartzen dituen informazioa ageri beharko da, hiri antolaketako eskumena gauzatu ahal izateko. Horrez gain, formulazio prozesua eta erabakiak hartzeko aukerak ere azaldu beharko dira, eta herritarrek aurkeztutako alegazioak, iradokizunak eta erreklamazioak ere aztertu beharko dira bertan, eta abian jarritako irtenbideak ere justifikatu beharko dira.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- b) Ingurumen inpaktuari buruzko alde zurretiko txostena betetzeko zurrizte memoria, ingurumen iraunkorraren printzipioa oinarritzat hartuta, abian jarritako hiri antolaketa irtenbidea motibatu beharko da bertan, lurzoruek planean xedatutako aurreikuspenak betetzeko duten ahalmena kontuan hartuz.
 - c) Informazio-planoak.
 - d) Egitura-antolaketarako planoak.
 - e) Antolaketa-plano xehatuak.
 - f) Bideragarritasun ekonomiko-finantzarioaren azterlana.
- Aipatutako dokumentuaz gain, 2008ko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuak, 2/2006 Legea garatzeko presazko neurriei buruzkoak, 31. artikuluan beste dokumentu batzuk zehazten ditu, eta horiek ere espediente honetan agertu behar dira derrigorrez.

Euskadiko Ingurugiroa Babesteko 10/2021 Legeak xedatutakoaren arabera, hirigintza-plan guztiek Ingurumen Eraginaren baterako Ebaluazioa bete beharko dute, eta 2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari Buruzkoak, hirigintza-antolaketarako plan zehatz batzuetarako xedatutakoa eragotzi gabe, honako dokumentazio hau eduki beharko dute hirigintza-plan guztiek:

- a) Informazio eta zurrizte memoria, bertan judizio elementu guztiak agertu beharko dira, hiri-antolaketa eskumena garatu ahal izateko. Halaber, formulazioa egin eta erabakiak hartzeko aukerak hautatu bitarte jarraitutako prozesua zehaztu beharko da memoria horretan, betiere herritarren prozesu horretan aurkeztutako alegazioak, iradokizunak eta erreklamazioak kontuan hartuz. Prozesu horretan gizonen eta emakumeen presentzia orekatua erraztu edo sustatuko da, Hiri Antolaketarako Aholkularitza Kontseiluaren derrigorrezko txostenean, adibidez, baita hartutako erabakiak justifikatzeko orduan ere.
- b) Ingurumen iraunkortasunari buruzko txostena, bertan, garapen iraunkorraren printzipioa oinarritzat hartuta, abian jarritako hiri antolaketa motibatu beharko da. Ingurumen iraunkortasunari buruzko txosten horren barne, hiri antolaketako esparruko arrisku naturalen mapa bat agertu beharko da. Horrez gain, lurzoruek planean ageri diren aurreikuspenak hartzeko ahalmenari buruzko azterlan bat ere egin beharko da. Jarraian aipatzen diren txostenak derrigorrezkoak bakarrik badira hartuko ditu kontuan, eta horiek arautzen dituen legeriak xedatutakoaren arabera, prozeduraren ondorengo fase batean igorri behar ez badira:
 - 1) Ur administrazioaren txostena, eskaera berriak asetzeko beharrezko ur baliabiderik dagoen zehazteko, eta jabari hidrauliko publikoaren babesa zehazteko, arloko araudiaren arabera, hori derrigorrezkoa denean.
 - 2) Kosta administrazioaren txostena, itsas bazterreko herri jabariaren mugaketari eta babesari buruz, beharrezkoa bada.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

3) Administrazio eskudunen txostena, errepideei eta erasandako eremuan dagoeneko dauden gainerako azpiegiturei buruz, planeko aurreikuspenek sortuko duten eragina zehaztuz. Txosten horrek hirigintza jardueraren inpaktua aztertuko du zerbitzu-gaitasunaren arabera.

Aurreko ataletan zehaztu den moduan, beharrezko kontsultak egin ondoren, ikusi zen txosten honetako proposamenari ez zitzaiola ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura egin behar.

Azkenik, 2/2006 Legea garatzeko presazko neurriei buruzko 105/2008 Dekretuak 31. artikuluan xedatutakoa betez, espediente honekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

c) Hirigintza eraikigarritasunaren gehienezko eta gutxieneko estandarrak betetzen direla adierazten duen justifikazioa, era berean, populazioaren etxebizitza hazkundearen gehienezko zifra, etxebizitza-kopuruan adierazitakoa, hain zuzen ere lurralde antolaketarako tresnetan zehaztutakoa betetzen dela ere justifikatu beharko da, eta oro har, hirigintza plangintzak lurralde antolaketarako arauak betetzen dituela ere.

d) Iraunkortasun ekonomikoari buruzko memoria. Bertan, beharrezko azpiegiturak ezarri eta mantentzeko ardura edo horien ondorioz eman beharreko zerbitzuen ardura duten Ogasun publikoek, hau da, hirigintza jarduerak erasandakoek zein inpaktu jasango duten zehaztuko da, baita hirigintza jarduerak azaleran izango duen inpaktua eta ekoizpen erabilerarako lurzoruaren egokitzapena zehaztuz ere, hiritartu beharreko lurzorua kendu ondoren.

III.- ARAUDI APLIKAGARRIA

- 1) 2/2006 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoru eta Hirigintzari buruzkoa
 - Plangintza eta hirigintza-tresnak egitea, 84. artikulua.
 - Lizentzia-emateak etetea, 85. artikulua.
 - Aldez aurreko azterketak, 86. artikulua.
 - Hirigintzako plangintzaren aurrerakina, 87. artikulua.
 - Onarpenak hirigintzako plangintzan duen eragina, 88. artikulua.
 - Argitalpena eta indarraldia, 89. artikulua.
 - Plan orokorra egin eta izapidetzea, 90. artikulua.
 - Plan orokorra behin betiko onartzea, 91. artikulua.

- 2) 2008ko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretua, Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzeko presazko neurriei buruzkoa.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

3) Azkoitiko Hiri Antolaketarako Arauen Testu Bateratua:

4) 1985eko apirilaren 2ko 7/85 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzekoa

IV.KONTUAN HARTU BEHARREKO OHARRAK

IV.1.- Proposatutako aldaketak

TXALON ERREKA EKIALDEA - INSAUSTI ALDAKETA

Aurrekarien atalean adierazi den eran, atal honen oinarria Udal honek Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza saiarekine ta Azkoitia Lantzenekin sinatu duten hitzarmenean du oinarria. Bertan jasota geratu den eran, Txalon Errekako P1 lursailaren eraikigarritasuna Insaustiko lursailera bideratzea proposatzen da, eta alderantziz Insaustikoa Txalon Errekara.

ARAUDI OROKORREKO ARTIKULUEN ALDAKETA

Bestetik, duela egun gutxi argitaratu berri da 80/2022 Dekretua, irisgarritasun baldintzak arautzen dituen (168. zenbakidun EHAA, irailaren 1). Azkoitiko araudi orokorra azken Dekretua horretara egokitu ahal izateko, araudi orokorraren zenbait artikuluren aldaketa sustatzen ditu dokumentuak, 49, 57, 9-1, 52-b), eta 60-b).

IV.2.- Ingurumen iraunkortasunari buruzko txostenaren ondorioak

2022ko irailaren 5ean sarrera izan duen ingurumeneko txostenaren arabera, ez dago ingurumenean eragin nabarmenik. Dena dela, bertan era orokorrean xehatzen dira zenbait neurri zuzentzaile, eta babesle.

Dena dela, aurkezturiko dokumentuak ere, badu ingurumen iraunkortasunaren inguruko justifikazioa:

MEMORIA DE SOSTENIBILIDAD ECONOMICA

De conformidad con lo dispuesto en el art. 31,1,f) del Decreto 105/2.008, de 3 de Junio, de medidas urgentes en desarrollo de la Ley 2/2.006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo, la Memoria de sostenibilidad económica tiene como objeto la ponderación del impacto de las actuaciones urbanísticas en las Haciendas públicas afectadas por la implantación y el mantenimiento de las infraestructuras necesarias o la puesta en marcha y la prestación de los servicios resultantes, así como el impacto de las mismas en la superficie y adecuación de suelo que resulte destinado a usos productivos una vez deducido el suelo objeto de urbanización.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Mediante el presente Documento se procede a reformar la Normativa General en dos preceptos y un cambio-traslado de edificabilidad de vivienda protegida por vivienda libre, sin que se contemplen nuevas actuaciones urbanísticas, por lo que no procede formular un Estudio de estas características al ser nula su incidencia en la Hacienda Local.

IV.3.- Iraunkortasun ekonomikoa

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 31, 1, f) artikuluan ezarritakoa betez, Jasangarritasun ekonomikoaren memoria aurkezten da.

ESTUDIO DE VIABILIDAD ECONOMICO-FINANCIERA

El estudio de viabilidad económico – financiero contiene las determinaciones para conocer la viabilidad de las propuestas urbanísticas planteadas, en cumplimiento del artículo 62 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de suelo y urbanismo del País Vasco. Mediante el presente Documento se procede a reformar la Normativa General en dos preceptos y un cambio-traslado de edificabilidad de vivienda protegida por vivienda libre, sin que se contemplen nuevas actuaciones urbanísticas, por lo que no procede formular un Estudio de estas características al ser nula la incidencia económica del mismo.

IV.4.- Hirigintza eraikigarritasunerako gehieneko eta gutxieneko estandarrak betetzea.

Proposatutako aldaketak ez du eremu berririk garatzen, jada kudeaturiko bi eremuen arteko kalifikazioaren aldaketa soilik. Ez du eraginik beraz.

Gauza bera etxebizitza kopuruari dagokionea, ez dago etxebizitza-kopuruaren hazkundera justifikatzeko beharrik.

IV.5.- Bideragarritasun Ekonomiko Finantzarioaren Azterlana

Bideragarritasun ekonomiko-finantzarioaren azterlanak, proposatutako hirigintza proposamenen bideragarritasuna ezagutzeko xedapenak eduki behar ditu zehaztuta, hau da, 2006ko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, 62. artikuluan xedatutakoak.

Aurkeztutako dokumentuak bere beharrik ez dagoela justifikatzen du, hurrengo irizpideen arabera:

ESTUDIO DE VIABILIDAD ECONOMICO-FINANCIERA



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

El estudio de viabilidad económico – financiero contiene las determinaciones para conocer la viabilidad de las propuestas urbanísticas planteadas, en cumplimiento del artículo 62 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de suelo y urbanismo del País Vasco. Mediante el presente Documento se procede a reformar la Normativa General en dos preceptos y un cambio-traslado de edificabilidad de vivienda protegida por vivienda libre, sin que se contemplen nuevas actuaciones urbanísticas, por lo que no procede formular un Estudio de estas características al ser nula la incidencia económica del mismo.

IV.6.- Espedientearen dokumentazioa.

Zehaztapidetza azaletik aztertuta, egiazta daiteke dokumentuak onespenerako beharrezkoa den dokumentazio ia guztia biltzen duela. 105/2008 Dekretuak, ekainaren 3koak, 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoak, 32. artikuluan ezartzen duena betez, egikaritze-laburpen bat ere badu.

Laburpen horretaz zehazki eta berariaz xehatzen dira eragina jasaten duen eremu bakoitzaren zehaztapenak.

IV.7.- Erabileren ponderazio-koefizienteak

2006ko ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 56.f artikuluan xedatutakoaren arabera, besteak beste, erabileren artean ponderazio-koefizienteak jarri behar dira.

Baldintza horiek kontuan hartuz, balio eragingarriak zehaztu, eta horri dagozkien erabilera ponderazio-koefizienteak ezartzeko, honako xedapenak hartuko dira kontuan:

- * 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruaren Hiri Birgaitzearen Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- * Balorazioen arloko arautegia, 1492/2011 Errege Dekretua, Lurzoruaren Legearen Balorazioen Erregelamendua onartzen duena (270. BOE, 2011-11-9).

Kontuan izanik proposatzen den aldaketaren funtsa, teknikari honen aburuz ez litzateke beharko ponderazio koefizienteak zehaztea.

IV.8.- Dokumentazioa.

Aurkeztutako dokumentazioari dagokionez, egiaztatu da dokumentuak indarrean dauden fitxa eta proposamen guztiak jasotzen dituela.

Dokumentuen zerrenda:










AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Dada la escasa entidad de las modificaciones propuestas, que afectan fundamentalmente, a la transferencia de edificabilidad protegida que afecta a una parcela de cada uno de los ámbitos urbanísticos señalados (Sector 10 Txalon Erreka Este y Area 13 Insausti), así como a dos preceptos del documento Normativa General, de acuerdo a lo dispuesto en el art. 62 de la Ley 2/2.006, el presente proyecto, en cuanto a los aspectos que van a ser modificados, contiene los siguientes documentos:

- a.- Memoria informativa y justificativa.*
- b.- Modificación del art. de la Normativa General afectado.*
- c.- Normas Particulares y Planos vigentes.*
- d.- Normas Particulares y Planos modificados.*
- e.- Estudio de viabilidad económico-financiera.*
- f.- Memoria de sostenibilidad económica.*
- g.- Estudio de impacto de género.*
- h.- Eragin linguistikoaren ebaluazioa.*
- i.- Resumen ejecutivo.*

Dokumentazio grafikoari dagokionean:

-  01-IDENTIFICACION MODIFICACIONES
-  02-S10-TXALON ERREKA ESTE-ORDENACION PORMENORIZADA ACTUAL
-  03-S10-TXALON ERREKA ESTE-FICHA ACTUAL
-  04-A13-INSAUSTI-ORDENACION PORMENORIZADA ACTUAL
-  05-A13-INSAUSTI-FICHA ACTUAL
-  06-A13-INSAUSTI-ORDENACION PORMENORIZADA MODIFICADA
-  07-A13-INSAUSTI-FICHA MODIFICADA

IV.9.- Herritarren partze hartze programa.

Herritarren parte hartze programa bat jaso da espedientean, derrigorra baita antolamendu instrumentu honen tramitazioan programa hori izatea. Jasotako programa egokia da herritarren partze hartzea ahalbideratzeko eta alaketaren futsa kontuan izanda proportziozkoa.

V.- ONDORIOAK

Txostenean azaltzen diren gogoetak ikusita, eta Xabier Berasategik BEB Arkitektoak-en izenean aurkeztutako dokumentua aintzat hartuz, ez dago eragozpenik hura izapidetzeari ekiteko, Euskal Herriko lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 legearen 90. artikulua betez.

2. UDAL IDAZKARIAREN TXOSTENA



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Txosten honetan ez dira aurrekariak aipatzen, Udal Arkitektoak egindako txostenean jasotzen direlako.

ZUZENBIDE-OINARRIAK

Lehena.- Toki-Jaurbidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 7/1985 Legearen 22.2 c) artikulua araberaz, plangintza orokorra hasierako izaeraz onartzeko eta plangintzen izapideei eta hirigintzako legerian aurreikusita dauden gainerako antolamendu-tresnei eta, baita aipatutako tresnetan edozeinetariko aldaketa egitea helburu luketen hitzarmenei ere, amaiera ematea onartzeko organo ahalduna **Udalbatza Plenoa** da. Aipatu erabakia **gehiengo absolutuz** hartuko da, aipatu Legearen 47.2.II) artikuluan xedatutakoaren araberaz.

Bigarrena.- Aplikatzekoa den hirigintza-erregimen juridikoa Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen artikuluek zehazten dute eta honako hauek dira: 104 (*hirigintza-plangintzek ezarritako antolamendua aldatu eta berrikusteko prozedura*), 105 (*Aldaketan mugak*), 85 (*Lizentzia ematearen etendura*) eta 90 (*plangintza orokorra formulatu eta izapidetzea*).

Hirugarrena.- 2022ko irailaren 19an egindako txostenean, udal Arkitektoak izapidetzearen aldeko txostena egin du; horretarako, aurkeztu den dokumentazioari egoki iritzi dio.

Laugarrena.- Udalak hasierako izaeraz aurkezturiko dokumentua onartu ondoren, udalerriri dagokion lurralde historikoko aldizkarian eta prentsan jendaurrean jarriko du, hilabeteko epeaz, azkeneko argitalpenaz geroztik zenbatzen hasita. Orobat, eskumen sektorialak dituzten administrazioei hasierako onarpenaren berri emango zaie, jakinaren gainean eta informatuta egon daitezten.

Udalak, jendaurreko informazioaren emaitzak ikusirik, behin behineko onarpenari ekingo dio legezkiokkeen aldaketekin, bere kasuan.

Hala ere, aipatutako aldaketek, hasieran aurreikusitako antolamendu estrukturalen aldaketa esanguratsu bat egitea ekarriko balute, udalak bere hasierako onarpen berria erabakiko luke eta behin behineko onarpena baino lehenago jendaurreko informazioarako epe berri bat irekiko luke (90 artikulua 5 eta 6. atalak, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 104 artikuluari jarraiki).



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Bosgarrena.- Indarrean dagoen hirigintza-erregimenaren aldaketa dakarten zehaztaperen berriak aplikatu beharreko udalerriko area eta sektoreetan, **lizentzia ematearen etendura ekarriko du**, berez, aipatutako hasierako onarpenak.

Eraginkorra izan dadin, lizentzien etendura-erabakia argitaratua izango da Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 85. artikuluan ezarrita dagoen moduan.

Lizentzien etendura-erabakia behin betikoa da administrazio-bidean, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean erabakia azkenekoz argitaratzen den hurrengo egunaz geroztik zenbatzen hasita..

Seigarrena.-Hirigintza antolamendu tresna honen tramitazioan herritarren partehartzea ahalbideratzeko Herritarren PartzeHartze Programa bat onartuko da, hala xedatzen baitute 2/2006 Legeak eta 46/2020 Dekretuek.

Azkoitiko udaleko Hirigintzako Batzordeak, 2022ko irailaren 22an egindako bileran, aztertu eta bozkatu zuen irizpen-proposamen hau, bozketaren emaitza ondoko hau izan zelarik:

Aldeko botoak:Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Abstentzioak: Angel Etxeberria Ibaguren eta Itziar Joaristi Olariaga.

Beraz, Azkoitiko udaleko Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuetako Batzorde Informatiboak Udalbatza Plenoari proposatu dio ondoko hau onartzea

IRIZPENA

LEHENA.- Azkoitia udalerriko Hiri Antolaketako Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren (2007/10/02ko GAO)5.aldaketa puntuala onartzeko tramitazioari dagokion herritarren parte hartze programa onartzea.

BIGARRENA.-Ondoko hirigintza antolamendu instrumentua hasiera batean onartzea: Azkoitia udalerriko Hiri Antolaketako Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren (2007/10/02ko GAO)5.aldaketa puntuala, eragiten diena araudi orokorrari eta "HE 10.-



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Txalon Erreka Ekialdea” sektoreari zein “HE 13.- Insausti” areari, espedientean jasotako txosten teknikoetan adierazitako xehetasunekin.

HIRUGARRENA.- Erabaki honek berarekin dakar **edozein eratako onarpenak, baimenak eta lizentziak emateko aukera etetea**, aldaketak eragiten dituen eremuetan indarrean dagoen hirigintza-araudia aldatzen den kasu guztietan. Etendura honen gehieneko epea bi urtekoa izango da, eta kasu guztietan amaituko da dokumentua behin betiko izaeraz onartzen denean.

LAUGARRENA.- Hasierako onarpen-dokumentu hau **jendaurrean jartzea**. Horretarako iragarkia argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, hedadurarik handienetarikoa du(t)en lurraldeko egunkari(et)aneta udal webgunean. Informazio publikoko epea hilabete batekoa izango da, azkeneko iragarkia argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita, eta herritarrek aukera izango dute espedientea aztertu, eta iradokizunak edo erreklamazioak aurkezteko udalaren aurrean.

BOSGARRENA.- Eskumen sektorialak dituzten Administrazioei hasierako onespeneren berri eman eta dokumentua helaraztea.

Lizentzien etendurari dagokion erabakia behin betikoa da administrazio-bidean, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean erabakia azkenekoz argitaratzen den hurrengo egunaz geroztik zenbatzen hasita.

Hala ere, berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da Udalaren Osoko Bilkuraren aurrean, hilabeteko epean, erabaki hau azkenekoz argitaratu ondorengo egunaz geroztik zenbatzen hasita, bidezkoa deritzon beste edozein jarri ahal izatearen kalterik gabe.”

Bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Marijose Arregi Etxeberria, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Sonia Vazquez Tejerina, Angel Luis Martin Rodriguez, Mertxe Zubillaga Albizu, Juan Bautista Mendizabal Juaristi, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Abstentzioak: Ainara Goenaga Andueza, Mikel Zengotita Alberdi, Iraitz Otaño Mujika, Laida Bersistain Zubizarreta, Itziar Joaristi Olariaga eta Angel M^a Etxeberria Iburguren.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Beraz, Udalbatza Osoak hiri antolaketako araudietako 5. aldaketa zehatza, 10. sektorea "Txalonerreka Ekialdea", 13. area "Insausti" eta Araudi Orokorrari dagokiona, hasieraz onartzea gehiengoz erabaki du.

Honela jasota gera dadin, eta behar den lekuan ondorio egokiak sor ditzan, ziurtagiri hau luzatu eta izenpetzen dut, Alkateak Ontzat Emanik, Azkoitian,

ALKATEAK

IDAZKARIAK

O.E.

HIRIGINTZA ETA GARAPEN IRAUNKORRA - URBANISMO Y DESARROLLO SOSTENIBLE

Tel . 943 857172 / Fax. 943 852140 - ofitek@azkoitia.net

AZKOITIKO UDALA - HERRIKO ENPARANTZA Z/G - 20720 AZKOITIA



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUee273a2e-3116-430e-b5c3-4035ec3f09e4**

Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>**

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2022HPEA0001-OSOKO BILKURAKO AKORDIOA/ACUERDO DE PLENO (AZKOITIKO)